

# Bokal-elkarketak beratarren hizkeran

**Edurne Perez Landa**  
**EHUko Euskal Filologiako ikaslea**

Aldaera estandarraren eta dialektoen arteko bateratze-joerak lantzeko asmoarekin, Berako hizkeran bokal irekien aurrean bokalen jokaeren azterketan oinarritu naiz. Abiapuntua hipotesi bat izan da: jende adinduengan Berako hizkeran ohikoak diren arau morfofonologikoei dagozkien bokal-egokitzapenak galduz doazela jende gazteengan. Bi ezaugarriok galduz doazela ondorioztatzen da. Oraindik ere bokal irekien aurrean beste bokal irekiak ixtea nagusi bada ere, gero eta gutxiago egiten da disimilazio hori; epentesiaren erabilera, aldiz, adinekoengan baino ez da mantentzen, jada epentesirik ez tartekatzea nagusitu baita.

The base of this article has been the research of the different vowels' behaviour in front of open vowels in the speech of Bera, with the intention to work on levelling-tendencies between standardized variation and dialects. The point of departure has been a hypothesis; in fact, until now open vowels always have been closed compounding with other open vowel, and when compounding vowel was i, it has been put an epenthesis. However, at the end of this work I have deducted that those two characteristics are being lost. Although it is still common to close open vowels in front of other open vowel, the speakers use less and less that resource. On the other hand, only old people keep the use of the epenthesis; it has already prevailed the not use of the epenthesis.

## 1. Sarrera\*

Lan honetan Berako hizkerak zein ezaugarritan erakusten dituen aldaerak ikusi ondoren, horietako bat azertu nahi izan da. Aipatzekoa da, eremu horretako euskarari buruz gutxi dagoela argitaratua; baina nik bi arrazoi nagusi izan ditut ikerketa-gaia aukeratzeko: alde batetik, ikerketa Nafarroan kokatu nahi izana; bestetik, Bera herriaren eta bertako euskararen erakargarritasuna.

Bertako hizkeraz jantzia den Patxi Iñigoren laguntzaz, aldaerak zein ezaugarritan eta zeinen artean dauden ikusi dut. Izan ere, aldaerak bi ataletan bereiz ditzakegu, auzo batetik bestera sumatzen direnak eta adinekoen eta gazteen artean ageri direnak. Bigarren atalekoa da hemen aztertzen duguna. Bestalde, aldaera horiek fonologian, morfologian, lexikoan nahiz beste alderdi batzuetan daudela ikusi ondoren, bokalen arteko elkarketetan fonologiari dagokionez zer gertatzen den aztertzea izan da lan honen oinarria, bokal irekien aurrean bokalen jokaerak aztertzea, alegia.

Beste hitz batzuetan esateko, azkeneko urteotan ikerketa eta hausnarketa askoren oinarri (Aurrekoetxea, 2004; Auer & Hinskens, 1996; Auer, 1998; Hinskens, 1998; González, 2001) izan den aldaera estandarraren eta dialektoen arteko bateratze-joerak lantzea da lan honen helburua. Izan ere, hau ez da euskararen berezko ezaugarria; hizkuntza guztietan gertatzen baitira hizkuntza estandarraren eta dialektoen arteko harremanak.

All over Europe, social and cultural changes have affected the nature and position of the old dialects, thereby dissolving the traditional linguistic situation and giving way to complex sociolinguistic developments (Auer & Hinskens, 1996: 1).

Hizkuntzak etengabe aldatuz doaz; hori da benetako hizkuntza-errealitatea. Gure kasuan, euskalki asko eta ezberdinak egon arren (Euskal Herriaren zatiketa eta euskararen ofizialtasun eza arrazoi nagusiak izanik), azkenaldian euskarak berdintzera egin du, 1950etik hona batez ere. Horren arrazoiak, gure artean hain ezagunak diren komunikabide, garraio bide eta hedabide modernoek eragina, euskara batuaren sorrera eta euskara hainbat esparru berritan sartzea izan dira; hau da, euskararen estandarizazioak, euskararen normalizazioaren abiatzeak (irakaskuntzan, hedabideetan nahiz administrazioan) eta bizimodu modernoak bultzatu duen harremanen estutzeak ekarri dute euskalkiak bateratzea. Aurrekoetxeak ere bere lanean dialektoen egonkortasunaren galera hizkuntzen estandarizazioari, industrializazioari eta horrek eragindako hirietarantzko giza mugimenduari, eskolatzeari eta komunikabideei egozten die (Aurrekoetxea, 2004: 4).

Hizkuntzen estandarrerantzko prozesuan, estandarraren eta euskalkien arteko distantzia txikituz doa, eta ondorioz dialektoen arteko forma desberdinak ere gutxituz doaz. Izan ere, estandarra bat izanik, euskalki guztiak horri hurbilduz, hau da, euskalkiak eredu berdin bati hurbilduz doazen heinean, haiek ere gero eta antzekoagoak izango dira. Auer eta Hinskens-ek ere antzeko ideia ematen dute Aurrekoetxeak bere lanean jasotzen duen bezala: «Estandarrerantzko prozesuan

---

\* Eskerrak eman nahi dizkiet Gotzon Aurrekoetxeari, bere eragintzagatik eta zuzenketengatik; Patxi Iñigori, lan honetarako atek irekitzeagatik; Amaia Agirre Iribarreni, lan honetan kide nekazina izateagatik eta Berako herriari, bere gertutasunagatik.

dialektoak elkarrekin batera doazenean eta estandarrak modu bertsuan eragiten dienean, estandarraren eta dialektoen arteko distantzia txikituz doan bitartean, dialektoen arteko forma desberdinak ere urrituz joaten dira» (Auer & Hinskens, 1996; apud. Aurrekoetxea, 2004: 5). Auer, Hinskens eta, gure artean, Aurrekoetxeak, besteak beste, erabili izan duten moduan, lehenengoei (hots, estandarraren eta dialektoen arteko) bateratze bertikalak deritze, eta dialektoen arteko bateratze horizontalak. Ikusi berri dugunaren arabera, bateratze bertikalak gehienetan bateratze horizontalak ere eragin ditzakete, baina dialektoen arteko ez dute zertan estandarraren eta dialektoen arteko bateratzerik eragin (Auer & Hinskens, 1996: 12).

Lan honetan, bateratze bertikalak dira ikergai, eta ez horrenbeste horizontalak. Gainera, euskalkiek (Berako euskarak zehazkiago) estandarretik jaso duten eraginera mugatu naiz, eta ez euskalkiek estandarrean izan duten eraginera.

Euskararen berdintze-joera aipatu dugu, baina esan beharra dago hori ez dela hizkuntzek jasan dezaketen aldaketa bakarra; hau da, aldaketek batzuetan hizkeren arteko aldeak txikitu ditzakete (berdintze-joerak), baina beste batzuetan aldeak handitu ditzakete, euren arteko ezberdintasunak areagotuz. Kasu honetan, aldaera estandarraren eta euskalkiaren arteko konbergentzia da hemen aztertu dena, eta ez dibergentzia<sup>1</sup>.

Estandarraz gain, bada herri-euskararengan eragin nabarmena izan duen eta oraindik ere baduen beste hizkera bat, hizkuntza kasu honetan, gaztelania hain zuzen ere. Sánchez Carrión-ek duela hiru hamarkada jada gaztelaniaren eragina azpimarratu zuen Berako egoera aztertu zuenean:

... las localidades demográficamente progresivas —Vera y Lesaca—, industrializadas, son castellanófonas —Vera— (...) La castellanización de Vera se inició hace más de 50 años, merced al establecimiento de una burocracia administrativa y militar, castellanófona, a las fundiciones, que trajeron inmigrantes, algunos de zonas erdéricas, y a su pronto auge como población de veraniego (1972: 108-109).

## 2. Metodologia

Lan honen abiapuntua hipotesi bat izan da; izan ere, orain arte egindako lanetan (Gaminde, 1985 eta Zelaieta, 2004)<sup>2</sup> Berako euskaran bokal irekien (**a**, **e** eta **o**) aurrean agertzen diren bokalek joera ezberdina erakusten dutela esan izan da. **E** eta **o** bokalak beti ixten dira bokal ireki baten aurrean daudenean: **e+a>ia**; **e+e>ie**; **e+o>io**; **o+a>ua**. Aldiz, **i** denean bokal irekien aurrean dagoen bokala, orain arte **y** epentetiko bat sartu izan da: **i+a>iya**; **i+e>iye**; **i+o>iyo**. Zenbaiten ustez, gaur egun bokal irekiaren ixtea bai helduek eta bai gazteek egiten badute ere, bokal itxiaren eta irekiaren artean epentesia tartekatze joera gazteen artean galduz doan ezaugarria da. Baina, hori al da Berako hizkeraren benetako

1. «The convergence and the divergence, the becoming structurally more similar and dissimilar respectively...» (Auer & Hinskens, 1996: 1).

2. Esan behar da bi autore hauek dialektologia tradizionalaren ildotik egindako azterketak egin zituztela.

errealitatea? Oraindik ere bi ezaugarri horiek nagusi al dira belaunaldi berriengan? Ala galduz doazen baliabideak dira?

Ezaugarri horien azterketa abiatzeko datu-bilketa izan da lehenengo pausua, grabaketen bitartez, eta horretarako galdera-sorta itxi bat eman zitzaien lekukoei, gaztelaniazko zenbait esaldi euskaratzeko eskatuz. Galdera horietako batzuk lehenengo ezaugarriari dagozkio (**e** eta **o** bokalen ixteari), eta besteak bigarrenari (**i** eta bokal irekiaren arteko **y** epentetikoari). Lehenengo motakoak aztertzekeo **e+a** bilkura erabili dut nagusiki, eta bigarren motakoak aztertzekeo **i+a** elkarketa. Gainera, bokal-elkarketa horiek honako ingurune hauetan aurki ditzakegu: erroaren eta deklinabide-atzizkiaren arteko muga, edo erroaren barnean. Esan behar da hitz-muga gertatzen dena aztertzekeo deklinabidekeo bi kasu aukeratu ditudala, absolutua eta ergatiboa, singularreko nahiz pluraleko adibideez baliatuz. Aukera guztiak lantzeko, azken ingurune horretarako lau galdera (bi singularrean eta bi pluralean) eta erroaren barruko beste lau prestatu ditut, galderak hurrenkera ez-jarraian ipiniz hitzuna zeren bila gabiltzan kontura ez zedin.

Grabaketa egiten hasi aurretik, argi eta garbi azaldu zitzaien Berako hizkera dela bilatzen ari zena, etxekoa, eta hortaz familiarrean eta lagunartean egiten duten bezala egin zezatela eskatu zitzaien.

Galderak nori egitearen aukeraketa ere oso garrantzitsua da. Lan honetan adinaren araberrako ikerketa bat egin nahi izan denez, adin guztietako beratarak aukeratu dira, lau multzo osatuz: haurrak (10 urte inguruko neska-mutilak), gazteak (20-25 urte bitartekoak), helduak (40-45 urte bitarteko gizon-emakumeak) eta adinakoak (61 urtetik gorakoak). Hizkuntza guztietan belaunaldiz belaunaldi aldaketa handiak nabaritzen dira, eta Euskal Herrian ere nabarmena da, are gehiago azken hamarkadetan euskarak izan duen estandarizazio- eta normalizazio-prozesuaren ondorioz. Izan ere, argi ikusten da herri-euskararen erabilerak adinekoengan gazteagoengan baino indartsuago diharduela, gazteen hizkera estandarerra hurbilduz doalarik.

Osozara 48 beratar grabatu dira, 12 adin-tarte bakoitzeko, eta auzo ezberdinetakoak izaten saiatuz, hasierako asmoa 12 auzotako jendeari egitea bazen ere. Bera hainbat auzoz osatua dago, horietako batzuk herrian bertan, kaletarrak, eta besteak baserritarrak. Sánchez Carrión-ek ere bi eremu horiek bereizi zituen, hiria (*población*) eta baserriak alegia, orduan azken horiek erabat euskaldunak zirela gaineratuz (1972: 109). Gainera, gure helburua estandarrek euskalkietan duen eragina ikertzea izanik, gauza jakina da Euskal Herrian baserriak izan direla euskalkia hobeto mantendu dutenak, baita euskara oro har ere (euskara estandarra, batua kasu honetan, gero eta esparru gehiago bereganatuz joan baita), herri handietan gaztelania nagusituz joan delarik. Berako egoera ere ez da bestelakoa:

En la calle, en comercios, en la plaza (...) se oye bastante vascuence, de gente que baja de los caseríos. (...) Vista su temprana castellanización y el hecho de que los caseríos adyacentes sigan siendo absolutamente vascófonos, debemos darle la razón a Caro Baroja cuando afirma que la zona de vigencia del euskera es el hábitat del caserío... (Sánchez Carrión, 1972: 109).

Ikerketa, beraz, hiri-dialektologiaren markoan kokatzen da, besteak beste, aldaketa jasaten duen ezaugarri zehatz baten azterketa egin delako, hizkera osoa landu beharrean. Kasu honetan, adinaren faktore soziala hartu da kontuan, eta neurri txikiago batean sexu eta bizilekuarena. Inkesta-metodologiari dagokionez, tradiziozkoa erabili da, galdera-erantzunarena alegia, eta ez hitzuna konturatu gabeko datu-bilketa.

Aipatzekoa da Auer eta Hinskens hizkuntzalarien ustez ere dialektoen konbergentzia eta dibergentzia (lan honetan aldaera estandarren eta dialektoaren arteko konbergentzia landuko da) prozesuak dialektologia sozial baten ikuspuntutik landu behar direla (1996:20).

Gainera, ikerketa hau ikuspuntu sinkroniko batetik egingo da, 2006. urte hasierako datuak baitira, historian zehar beratarrek nola egin izan duten kontuan hartu gabe. Berako euskararen historiaren momentu batean bertako lau belaunaldik bokal-elkarketak nola ahoskatzen dituzten da jarraian ikertutakoa.

### 3. Ikerketa

#### 3.1. –EA eta –IA bokal-elkarketak

Jarraian jasotako datuetatik esanguratsuenak baino ez ditut landu. Izan ere, behin bakarrik agertzen den hitza edota aldaera asko dituen ez da adierazgarria izango Berako hizkeran bokal-elkarketetan zer gertatzen den ikusteko orduan. Horregatik, ia lekuko guztiek erabili dituzten hitzak aukeratu dira, eta gainera bizpahiru aldaera baino ez dituztenak, bokal-elkarketan aldaera jasaten duena eta jasaten ez duena alegia<sup>3</sup>, argiago ikus dadin beratarren artean zenbatek darabilten bata eta zenbatek bestea.

Lehenengo, bokal irekien aurrean beste bokal irekiek erakusten duten joera aztertuko dut, *-ea* elkarketaz baliaturik, eta ondoren goiko bokalaren (*-ia*) joera.

Hurrengo taulek hitz bakoitzean haur, gazte, heldu eta adinekoen artean arruntena aldaketa jasaten duen forma ala aldaketarik jasaten ez duena ote den adierazten digute<sup>4</sup>, eta azkeneko zutabeak hitzun guztien artean zein den forma nagusia esaten digu.

---

3. Aipatzekoa da ikerketa honen abiapuntu izan diren inkestak egiteko orduan bokal-elkarketak erroaren barruan edo hitzaren mugan ote zeuden kontuan hartu bazen ere eta azken horiek lantzeko deklinabideko bi kasu aukeratu baziren ere, ikerketa hauetan ez dela horrenbeste kontuan izango; izan ere, corpusa aztertzean konturatu gara, esate baterako, hitzun askok absolutibo formak darabilzatelako testuinguru ergatibo batean, edota alderantziz.

4. Corpusa 12 haur, gazte eta helduen inkestetatik eta 11 adinekoenetatik aterata dagoenez, azken horien artean falta den inkesta horrek datuak zertxobait alda zitzaizkela pentsa daiteke, baina ez gehiegi. Izan ere, ikerketa honetan bildutako datuak beratarren hizkeran bokal irekien aurrean beste bokalek duten joera zein den ikusteko nahikoak dira, tendentzia garbi bat ikus daitekeelako.

### 3.1.1. –EA

#### A. -oa-

	ALDAERAK	HAUR	GAZTE	HELDU	ADINEKO	GUZTIRA
JOAN	JOAN	% 2,78	% 0,00	% 0,00	% 4,88	% 1,88
	JUAN/YUAN	% <b>97,22</b>	% <b>100,00</b>	% <b>100,00</b>	% <b>92,68</b>	% <b>97,50</b>
	JUN	% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 2,44	% 0,63
OSOTARA		% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00

#### B. -e + a

ESNE+A	ESNEA	% <b>83,33</b>	% 33,33	% 26,67	% 0,00	% 35,29
	ESNIA	% 16,67	% <b>66,67</b>	% <b>73,33</b>	% <b>100,00</b>	% <b>64,71</b>
OSOTARA		% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00

KAFE+AK	KAFE(A)(K)	% <b>91,67</b>	% 33,33	% 16,67	% 9,09	% 38,30
	KAFIA(K)	% 8,33	% <b>58,33</b>	% <b>83,33</b>	% <b>81,82</b>	% <b>57,45</b>
	KAFI(I)K	% 0,00	% 8,33	% 0,00	% 9,09	% <b>4,26</b>
OSOTARA		% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00

BERDE+AK	BERDEA(K)	% <b>90,91</b>	% 31,82	% 57,89	% 10,53	% 48,78
	BERDIA(K)	% 9,09	% <b>59,09</b>	% <b>42,11</b>	% <b>73,6</b>	% <b>45,12</b>
	BERDIK	% 0,00	% 9,09	% 0,00	% 5,26	% <b>3,66</b>
	BERDIYAK	% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 10,53	% <b>2,44</b>
OSOTARA		% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00

I(RA)KASLE+AK	I(RA)KASLEAK	% <b>100,00</b>	% <b>75,00</b>	% <b>83,33</b>	% <b>50,00</b>	% <b>82,05</b>
	I(RA)KASLIAK	% 0,00	% 0,00	% 8,33	% <b>50,00</b>	% 7,69
	I(RA)KASLI(I)K	% 0,00	% 25,00	% 8,33	% 0,00	% 10,26
OSOTARA		% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00

JABE+AK	YABEAK/EK	% <b>75,00</b>	% <b>66,67</b>	% <b>66,67</b>	% 0,00	% <b>64,29</b>
	YABIAK/EK	% 25,00	% 16,67	% 33,33	% <b>100,00</b>	% 28,57
	JABI(I)K	% 0,00	% 16,67	% 0,00	% 0,00	% 7,14
OSOTARA		% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00

GAZTE+EK	GAZTEAK/EK	% <b>100,00</b>	% <b>50,00</b>	% <b>54,55</b>	% 9,09	% <b>53,33</b>
	GAZTIAK/EK	% 0,00	% 25,00	% 36,36	% <b>81,82</b>	% 35,56
	GAZTIK	% 0,00	% 25,00	% 9,09	% 9,09	% 11,11
OSOTARA		% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00

LORE+EK	LOREAK/EK	% <b>100,00</b>	% <b>75,00</b>	% <b>83,33</b>	% 9,09	% <b>68,09</b>
	LORIAK/EK	% 0,00	% 8,33	% 16,67	% <b>90,91</b>	% 27,66
	LORI(I)K	% 0,00	% 16,67	% 0,00	% 0,00	% 4,26
OSOTARA		% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00

### C. -e + a-

ETXE <u>HAU</u> /ON	ETXE AU/ON	% <b>100,00</b>	% <b>88,89</b>	% <b>75,00</b>	% <b>60,00</b>	% <b>84,85</b>
	E/ITXI AU/ON	% 0,00	% 11,11	% 25,00	% 40,00	% 15,15
OSOTARA		% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00

### D. -ea-

<u>BEHAR</u>	BEAR	% <b>91,67</b>	% <b>100,00</b>	% <b>100,00</b>	% <b>91,30</b>	% <b>95,51</b>
	BIAR	% 8,33	% 0,00	% 0,00	% 8,70	% 4,49
OSOTARA		% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00

### E. -e + an

<u>BITARTEAN</u>	BIT(T)ARTEAN	% <b>77,78</b>	% 27,27	% <b>45,45</b>	% 33,33	% 47,06
	BIT(T)ARTIAN	% 11,11	% 27,27	% 36,36	% <b>66,67</b>	% <b>29,41</b>
	BIT(T)ARTIN	% 11,11	% <b>45,45</b>	% 18,18	% 0,00	% <b>23,53</b>
OSOTARA		% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00

<u>URTEAN</u>	URTEAN	% <b>83,33</b>	% 16,67	% 36,36	% 0,00	% 34,78
	URTIAN	% 8,33	% 16,67	% <b>36,36</b>	% <b>63,64</b>	% <b>30,43</b>
	URZIA	% 0,00	% 0,00	% <b>0,00</b>	% 9,09	% <b>2,17</b>
	URZIN	% 8,33	% <b>66,67</b>	% <b>27,27</b>	% 27,27	% <b>32,61</b>
OSOTARA		% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00

### F. knts. + an (bat)

<u>BATEAN</u>	BATEAN	% <b>88,89</b>	% 25,00	% <b>60,00</b>	% 12,50	% 46,15
	BATIAN	% 11,11	% 25,00	% 20,00	% <b>50,00</b>	% <b>25,64</b>
	BATIN	% 0,00	% <b>50,00</b>	% 20,00	% 37,50	% <b>28,21</b>
OSOTARA		% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00

Datu horiek e > i / \_a eta o > u / \_a disimilazioak aztertzeko baliagarriak dira, hau da, bokal irekiek beste bokal ireki baten aurrean erakusten duten ixteko joera. Kasu honetan hiru dira aukerak Berako hizkeran: bokalak mantentzea (-ea); lehenengo bokal irekia ixtea, disimilazioa alegia (-ia), edo aurreko disimilazioa gertatu ondoren mugatzailea guztiz asimilatzea (-ea > -ia > <sup>\*</sup>-ii > -i). Bada beste adibide bat zeinetan bigarren bokala asimilatu den, nahiz eta kasu honetan bokal hori mugatzailea ez izan; izan ere, hiztun batek -oa (*joan*) multzoan ere -u egiten du, lehenengo bokalen arteko urruntze bat egon delarik, disimilazioa edo lehenengo bokalaren ixtea alegia: -oa > -ua > <sup>\*</sup>-uu > -u. Azkenik, badago beste kasu bat non adineko batek disimilazioa egin ostean epentesia sartzen duen (-ea > -ia > -iya; *berdiyak*). Azken adibide horietan, -ea bokal-elkarketadun hitz bat bai mugatzailearen asimilazioarekin (-i) bai epentesiarekin (-iya) ahoskatu direnean, itxiera egon dela hartu izan da kontuan.

Berako hizkera aztertu dutenen artean Gaminde eta Zelaieta ditugu. Lehenengoak iparraldeko goi- nafarrerako aditza eta bigarrenak Bortziritako hizkera landu dituzte, dialektologia tradizionalaren metodologiari jarraituz. Zelaietak bere lanean o+a > ua eta e+a > ia motatako disimilazioak aipatzen ditu, eta disimilazioaz

gain mugatzailearen asimilazioa ere gaineratzen du: «Beran eta Etxalarren bietara sumatu dugu (...), nahiz eta bigarrenak gailentzen (ari) diren» (2004: 235). Gamindek, aldiz, mugatzaileak eragindako aldaerak ikertzean disimilazioa baino ez du aipatzen eta  $-e+a(k) > -ia(k)$  eta  $-o+a(k) > -ua(k)$  ematen ditu (1985: 13,14,16,17).

Tauletan *-ea/-oa* bokal-elkarketa duten hamahiru adibideren estatistika ikus dezakegu, erroaren eta deklinabide-atzizkiaren arteko mugan dela (B), erro barruan dela (A, D), elkarren jarraian dauden bi hitzen arteko mugan dela (C), inesiboan dela (E, F). Haurrek *joan*-en kasuan izan ezik (honetan *juan/luan* forma baita nagusi, haurren % 97,22k horrela egiten baitu), gainerako adibideetan gehienek lehenengo bokala itxi gabeko aldaera egiten dute, jatorrizko bokalak mantenduz alegia.

Gazteen artean ere arruntena bokalak bere horretan mantentzea da. Helduek gazteen joera bera erakusten dute, ehunekoak berdinak ez badira ere. Izan ere, bi adin-tartekoek bokal irekiaren ixtea lau hitz berdinetan egiten dute (*esnea > esnia*, *kafeak > kafía(k)*, *berdeak > berdia(k)*, *joan > juan/luan*), eta beste hitzetan bai batzuek eta bai besteek ez dute aldaketarik egiten. Baina gazteen eta helduen arteko diferentzia nagusia inesiboko adibideetan aurkitzen dugu (E, F). Gazteen artean inesiboko hiru adibideetan ( $-e + an$  motako bi eta *konts. + an* motako beste bat) mugatzailearen erabateko asimilazioa egitea da aukera nagusia (*bit(t)artin*, *urtin*, *batin*). Helduengan, aldiz, joera ezberdina ikusten dugu; batzuetan bokalak mantentzen dituzte, aldaketarik egin gabe (*bit(t)artean*, *batean*) eta hirugarren adibidean gehiengoak (% 63,64k) lehenengo bokala ixten du, gero batzuek mugatzailea asimilatzen dutelarik (*urtian* (% 36,36a)  $>^*$  *urtiin* > *urtin* (% 27,27)).

Adinekoen artean, berriz, joera bestelakoa da. Horiengan ia gehienetan lehenengo bokal irekia ixten da, bi kasutan izan ezik (*bear* eta *etxe au/on*), bata erro barrukoa eta bestea bi hitzen artekoa, hurrenez hurren. Beraz, dirudienez disimilazio hau *-a* mugatzailearen aurretik, erroaren eta morfemaren arteko mugan alegia, askoz ere indartsuagoa da. Inesiboko adibideei erreparatuz gero, gazte eta adinekoen artean antzekotasun bat hauteman daiteke, bi adin-tarte horiek baitira lehenengo bokalaren disimilazioa gehienetan egiten dutenak. Dena den, bada bien arteko diferentzia bat: adinekoek *-ean* amaierak *-ian* ahoskatzen dituzte eta gazteak harago doaz eta disimilazio horren ondoren lehen aipatu ditugun asimilazioak egiten dituzte, *-in* esanez. Gazteak dira, beraz, mugatzailearen erabateko asimilazioa gehien gauzaten dutenak (lehenengo  $-e > i / \_a$  eta ondoren  $-a > i / i\_$ , azkenean bi bokal berdin horiek sinpletuz ( $-ii > -i$ )).

Adin guztietako lekukoen datuak orokorki hartuz gero (taularen azkeneko zutabea), bi joera nagusi aurki ditzakegu: zenbait kasutan (C, D) hiztunen gehiengoak bokalak mantentzen ditu, itxierarik gabe alegia; eta beste kasuetan (A, E, F) lehenengo bokala itxiz disimilatzea da nagusi. Aipatzekoa da erroaren eta atzizkiaren arteko mugako kasuetan (B) bi joerak direla nagusi, zeren hiru kasutan (absolutu singularrean eta ergatibo singularretan) gehiengoak lehenengo bokal irekia ixten baitu, gero batzuek mugatzailea asimilatzen dutelarik, eta beste lau kasuetan (absolutu pluraletan eta ergatibo pluraletan), aldiz, disimilaziorik ez egitea baita nagusi. Inesiboko hiru kasuetan (E, F), kontuan hartuz mugatzailearen asimilazioa egin dutenek aurretik lehenengo bokala itxi dutela, joera nagusia bokal irekia beste bokal ireki baten aurrean doanean disimilatzea da.



### 3.1.2. -IA

#### A. -i + a

	<b>ALDAERAK</b>	<b>HAUR</b>	<b>GAZTE</b>	<b>HELDU</b>	<b>ADINEKO</b>	<b>GUZTIRA</b>
EZTI+A	EZTIA	% <b>100,00</b>	% <b>91,67</b>	% <b>66,67</b>	% 20,00	% <b>71,74</b>
	EZTIYA	% 0,00	% 8,33	% 33,33	% <b>80,00</b>	% 28,26
OSOTARA		% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00
IRRATI+A	IRRATIA	% <b>100,00</b>	% <b>100,00</b>	% <b>100,00</b>	% <b>100,00</b>	% <b>100,00</b>
	IRRATIYA	% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 0,00
OSOTARA		% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00
OGI+A	OGIA	% <b>100,00</b>	% <b>66,67</b>	% 37,50	% 12,50	% <b>58,33</b>
	OGIYA	% 0,00	% 33,33	% <b>62,50</b>	% <b>75,00</b>	% 38,89
	UII	% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 12,50	% 2,78
OSOTARA		% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00
GORRI+AK	GORRIA(K)	% <b>100,00</b>	% <b>66,67</b>	% <b>58,33</b>	% 9,09	% <b>57,78</b>
	GORRIYA(K)	% 0,00	% 25,00	% 41,67	% <b>90,91</b>	% 40,00
	GORRIK	% 0,00	% 8,33	% 0,00	% 0,00	% 2,22
OSOTARA		% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00
ARGI+AK	ARGIA(K)	% <b>100,00</b>	% <b>58,33</b>	% <b>58,33</b>	% 9,09	% <b>57,45</b>
	ARGIYA(K)	% 0,00	% 33,33	% 41,67	% <b>90,91</b>	% 40,43
	ARGIIK	% 0,00	% 8,33	% 0,00	% 0,00	% 2,13
OSOTARA		% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00
NAGUSI+AK	NAGUSIAK/EK	% <b>100,00</b>	% <b>83,33</b>	% <b>88,89</b>	% <b>33,33</b>	% <b>72,41</b>
	NAGUSIYAK/EK	% 0,00	% 0,00	% 0,00	% <b>33,33</b>	% 10,34
	NAGUSI(I)K	% 0,00	% 16,67	% 11,11	% <b>33,33</b>	% 17,24
OSOTARA		% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00
MENDI+AK	MENDIAK	% <b>100,00</b>	% <b>75,00</b>	% <b>63,64</b>	% 20,00	% <b>66,67</b>
	MENDIYAK	% 0,00	% 16,67	% 27,27	% <b>80,00</b>	% 28,89
	MENDIK	% 0,00	% 8,33	% 9,09	% 0,00	% 4,44
OSOTARA		% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00
TXERRI+AK	ZERRIAK/EK	% <b>90,91</b>	% <b>88,89</b>	% <b>75,00</b>	% 12,50	% <b>69,44</b>
	ZERRIYAK/EK	% 9,09	% 0,00	% 25,00	% <b>62,50</b>	% 22,22
	ZERRI(I)K	% 0,00	% 11,11	% 0,00	% 25,00	% 8,33
OSOTARA		% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00
ZALDI+EK	ZALDIK/EK	% <b>100,00</b>	% <b>100,00</b>	% <b>54,55</b>	% 20,00	% <b>69,77</b>
	ZALDIYAK/EK	% 0,00	% 0,00	% 36,36	% <b>80,00</b>	% 27,91
	ZALDIK	% 0,00	% 0,00	% 9,09	% 0,00	% 2,33
OSOTARA		% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00

BI+EK	BIAK/EK	% <b>100,00</b>	% <b>83,33</b>	% <b>75,00</b>	% 27,27	% <b>72,34</b>
	BIYAK/EK	% 0,00	% 16,67	% 25,00	% <b>63,64</b>	% 25,53
	BIK	% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 9,09	% 2,13
OSOTARA		% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00

BEGI+EK	BEGIAK/EK	% <b>90,91</b>	% <b>77,78</b>	% <b>75,00</b>	% 25,00	% <b>69,44</b>
	BEGIYAK/EK	% 0,00	% 0,00	% 25,00	% <b>75,00</b>	% 22,22
	BEGI(I)K	% 9,09	% 22,22	% 0,00	% 0,00	% 8,33
OSOTARA		% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00

## B. -io-

RADIOA	RADIOA	% <b>100,00</b>	% <b>100,00</b>	% <b>100,00</b>	% <b>70,00</b>	% <b>80,00</b>
	RADIUA	% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 20,00	% 13,33
	RADIYOA	% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 10,00	% 6,67
OSOTARA		% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00

BALIO	BALIO	% <b>91,67</b>	% <b>91,67</b>	% <b>66,67</b>	% 0,00	% <b>63,83</b>
	BALIYO	% 8,33	% 8,33	% 33,33	% <b>100,00</b>	% 36,17
OSOTARA		% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00

BIHOTZ	BIOTZ	% <b>100,00</b>	% <b>100,00</b>	% <b>100,00</b>	% <b>72,73</b>	% <b>93,33</b>
	BIYOTZ	% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 27,27	% 6,67
OSOTARA		% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00

## C. -i + an

UDABERRIAN	UDABERRIAN	% <b>91,67</b>	% <b>75,00</b>	% <b>87,50</b>	% <b>100,00</b> <sup>5</sup>	% <b>85,14</b>
	UDABERRIYAN	% 0,00	% 4,17	% 0,00	% 0,00	% 1,35
	UDABERRIN	% 8,33	% 20,83	% 12,50	% 0,00	% 13,51
OSOTARA		% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00	% 100,00

Taula horiek, *-ia* bokal-elkarketetan zer gertatzen den ikertzeko hamalau hitzen taulak ditugu, eta kasu bakarra inesiboan. Hiru dira oraingoan ere joerak: epentesirik ez sartzea (*-ia*), epentesia tartekatzea (*-iya*) edo mugatzailea asimilatzea (*-i*).

Gaminde (1985) eta Zelaietaren (2004) lanetan, berriz, azkeneko aukera hori ez da jasotzen *-ia* elkarketak aztertzean. Gamindek  $-ia(k) > -iya(k)$  baino ez du aipatzen Berako hizkeran (1985: 14,16). Zelaieta zehatzagoa da eta  $i+a > iya$  aldaketa «// hori azentuduna denean sistematikoki egiten dela» aipatzen du, baina ez azentuduna ez denean (2004: 236). Hemengo datuei begiratuta horretaz ere ohartzen gara. Adinekoen artean, *-i* azentuduna denean gehiengoak epentesia ezartzen du (*eztiya*, *ogíya*, *mendíyak*, *txerríyak/ek*, *gorríya(k)*, *argíya(k)*, *zaldíyak/ek*, *biyak/ek*, *begiyak/ek*, *baliyo*) eta azentuduna ez denean gehiengoak epentesirik gabe ahoskatzen du (*irrátia*, *rádia*, *biótz*, baita inesiboko *udaberrian*

5. Lekuko bakarrak esan zuen *udaberri* hitza, gainera epentesirik sartu gabe (*udaberrian*); horregatik estatistikoki % 100ak esan zuela agertzen zaigu. Gainerako adinekoek *primabera* esan zuten.

ere). Baina hori adinekoiei dagokienez, beste hiru belaunaldietakoen datuak guztiz desberdinak baitira.

Haurren artean joera nagusia goiko bokalaren eta bokal irekiaren artean “y” epentetikorik ez sartzea da. Aipatzekoa da, gainera, hamaika kasutan % 100ak egiten duela horrela, eta gainerako lau kasuetan ere, % 90etik pasatzen dela.

Gazteek ere joera bera erakusten dute; izan ere, aztergai ditugun hitz guztietan epentesirik gabeko ahoskatzea da nagusi. Hala ere, ehunekoak ez dira haurren artean bezain altuak. Gainera, epentesirik ez tartekatze joera handiagoa da erro barruko testuinguruetan (B), erroaren eta deklinabide-atzizkiaren arteko mugan baino (A,C).

Helduen datuak ikusita, behin izan ezik (*ogia* esateko joera nagusia *ogíya* esatea baita), gainerako kasu guztietan joera bokal epentetikorik ez tartekatzea da.

Emaitzak bestelakoak dira adinekoen zutabeari erreparatzen badiogu, gehienetan epentesia tartekatze joera erakusten dutelako. Erroaren eta atzizkiaren arteko mugako bokal-elkarketan kasuan (A), hamaika adibidetatik bederatzitan gehiengoak epentesiarekin ahoskatzen du; beraz, epentesiaren erabilera da nagusi testuinguru horretan. Erro barruko hitzetan (B), berriz, bi joerak ikus daitezke: behin % 100ak tartekatzen du epentesia (*balíyo*), baina beste bi kasuetan joera nagusia ez tartekatzea da. Inesiboko kasuan (C) esan behar da adinekoen artean lekuko batek baino ez duela erabili *udaberrian*, gainerakoek *primaberan* erabiltzen dutelako (eta horregatik agertzen da estatistikoki % 100ak egiten duela epentesirik gabeko forma).

Lau multzoetako hiztunen datuak aintzat hartuta (azkeneko zutabea), kasu guztietan erdiak baino gehiagok epentesirik tartekatu gabe ahoskatzen dituzte *-ia* edo *-io* elkarketak dituzten hitzak.

### 3.2. Berako hizkera: disimilazioa, epentesia eta mugatzailearen asimilazioa

Aldiz, datuak hitz bakoitzeko hartu beharrean guztiak batera hartuz gero, *-ea* bilkura duten hitz guztiak zenbatuz eta horien artean zenbatetan gertatu den aldaketa eta zenbatetan ez, bestelako emaitza batzuk ikus daitezke. *-ia* duten hitzen kasuan, berriz, emaitzak ez dira horrenbeste aldatzen.

#### 3.2.1. Disimilazioa (*-ea* kasuetan)


-EA	ITXIERARIK EZ	BOKAL-IXTEA
HAURRAK	% 70,34	% 29,66
GAZTEAK	% 46,15	% 53,85
HELDUAK	% 45,57	% 54,43
ADINEKOAK	% 23,91	% 76,09
<i>OSOTARA</i>	% 46,73	% 53,27

#### 1. irudia.

1. irudian bi joera ikus daitezke. Alde batetik, *-ea* bilkuraren aurrean haurrak dira normalean itxierarik egiten ez duten bakarrak. Gainerakoek, gazte, heldu eta adinekoek alegia, lehenengo bokal irekia ixteko ohitura dute; gazte eta helduen

artean nahiko parekatuta dago (% 53,85 eta % 54,43), eta adinekoek bokala ixteko joera handiagoa dute (% 76,09).

Azkeneko larroak, lekuko enaitzak osotara ematen dizkigunak alegia, adierazten du beratarrek bi bokal irekien elkarketak dituzten hitzak disimilatzeko joera dutela, hau da, lehenengo bokala ixteko joera (% 53,27).



2. irudia.

Grafikoari erreparatuz, eta eskuineko zutabeak bokal-itxiera adierazten duela kontuan hartuz, bi bokal irekien arteko elkarketak ahoskatzean hiztunak zenbat eta helduagoak izan, orduan eta joera handiagoa dute horietatik lehenengoa ixteko (eskuineko zutabeak). Aldiz, zenbat eta gazteagoak izan, orduan eta joera handiagoa dago itxierarik gabeko aldaerak erabiltzeko, ezkerreko zutabeak adierazten duen moduan.

Bestalde, bokal-elkarketa horietan haurren artean izan ezik, besteengan bokala ixteko joera handiagoa da, ez-ixtekoa baino. Horregatik, besteak beste, grafikoaren azkeneko zutabe-bikoteari begiratuz gero, beratarren hizkeran, oro har, bi bokal irekien arteko multzoetan lehenengo bokala ixteko joera dela nagusi ikusten dugu, itxiera ez egitearekin diferentzia oso handia ez bada ere (% 53,27 eta % 46,73, hurrenez hurren).


### 3.2.2. Epentesia (-ia elkarketetan)

-IA	EPENTES. EZ	EPENTESIA
HAURRAK	% <b>98,59</b>	% 1,41
GAZTEAK	% <b>88,49</b>	% 11,51
HELDUAK	% <b>73,19</b>	% 26,81
ADINEKOAK	% 33,33	% <b>66,67</b>
OSOTARA	% <b>74,27</b>	% 25,73

3. irudia.

Bestalde, *-ia* bokaletako hitzetan bestelakoa da emaitza. Kasu honetan haur, gazte nahiz helduek epentesirik ez sartzeko joera handia dute (% 98,59, % 88,49 eta % 73,19, hurrenez hurren), adinekoek sartzeko ohitura duten bitartean (% 66,67).

Baina azkeneko lerroan ikus daiteke Berako hiztunek *-ia* bokal-elkarketetako hitzak gehienetan (% 74,27) epentesirik tartekatatu gabe ahoskatzen dituztela.



4. irudia.

Grafiko honek ere badu aurrekoarekin antzekotasunik; izan ere, epentesia erabiltzeko joera (eskuineko zutabeak) handiagoa da lekukoa helduagoa den heinean. Baina, zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta joera handiagoa dago epentesirik gabeko aldaerak erabiltzeko (ezkerreko zutabeak).


*-ia* elkarketei dagokienez, ordea, 61 urtetik gorakoen artean baino ez da nagusi epentesia ahoskatzea, haur, gazte eta helduen artean arruntena epentesirik ez tartekatzea delarik. Bigarren grafiko honen azkeneko zutabe-bikoteak adierazten du beratarren artean joera nagusia epentesirik ez sartzea dela, baina honetan diferentzia handiagoa da (%74,27 eta %25,73).

### 3.2.3. Asimilazioa (*-ia* bokal-elkarketetan)

Azkenik, aipatu behar da *-ia* bokal-elkarketetako goiko taula eta grafiko horietan epentesirik ez darabiltenen artean asimilazioa egiten duten kasuak ere sartu direla. Esate baterako, *begiyak/ek* ahoskatzen ez dutenen artean bokalak bere horretan mantentzen dituztenak daude (*begiak/ek*) eta baita bi bokalak asimilatzen dituztenak ere (*begi(i)k*).

-IA	EPENTES. EZ	EPENTESIA	ASIMILAZIOA
HAURRAK	% 97,89	% 1,41	% 0,70
GAZTEAK	% 83,45	% 11,51	% 5,04
HELDUAK	% 71,74	% 26,81	% 1,45
ADINEKOAK	% 27,91	% 66,67	% 5,43
OSOTARA	% 71,17	% 25,73	% 3,10

### 5. irudia.



### 6. irudia.

Modu honetan, epentesiaren erabilerari buruzko datuak ez dira asko aldatu (adinekoek nagusiki darabilten baliabidea izaten jarraitzen du, zenbat eta gazteago izan, orduan eta gutxiago erabiltzen delarik). Baina *-ia* bokalen arteko asimilazioari buruzko datuak agertzen dira. Horien arabera, oso gutxitan egiten dute beratarrek asimilazio mota hau *-ia* bokal-elkarketa oinarrian duten hitzetan. Dena den, gazteak adinekoekin pareka genitzake asimilazio honen erabilerari dagokionez, horrelako testuinguruetan asimilazioa gehien erabiltzen duten bi adin-tarteak baitira (% 5,04 eta % 5,43, hurrenez hurren).

Baina datu hauek ez datoz bat Gamindek eta Zelaietak euren lanetan emandako emaitzekin, lehen esan bezala, biek *-i + a* elkarketetan Berako hiztunek epentesia tartekatzen dutela aipatzen dutelako (*-iya*), baina ez bokalen asimilazioa egiteko joera ere badagoela, oso handia ez bada ere. Izan ere, aipatzekoa da bi autore horiek erabili zuten metodologia dialektologia tradizionalakoa dela, eta ez hemen erabili den hiri-dialektologiakoa.

### 3.3. Galbidean dauden arauak eta aldaera berria

Bokalen arteko ezaugarri hauek, beraz, galbidean daudela esan daiteke. Baina galera hau ez da soilik belaunaldi berriengan nabari; helduengan gertatzen ari dena deigarria baita. Izan ere, helduak gazteengandik hurbilago daude, adinekoengandik baino, bokalen elkarketetako joerari dagokionez. Helduek bokal irekien elkarketetan bokal-ixtea % 54,43an darabilte (gazteek % 53,85ean) eta epentesia ez erabiltzea da nagusi bi adin-tarteetan; helduek kasuen laurdenean tartekatzen dutela esan genezake (% 26,81), eta gazteek % 11,51n.

Argi eta garbi ikusten da, beraz, adinekoek eusten diotela hoberen bertako hizkerari, eta besteengan (heldu, gazte zein haurrengan) euskalki zaharreko zenbait ezaugarri (bokal arteko disimilazioa eta epentesia, esate baterako) behera egiten dutela, batzuek azkarrago eta beste batzuek mantsoago. Izan ere, belaunaldi berriengan euskara estandarizatuak, batuak, eragin nabarmena du, eta horrek hizkuntza oraindik gehiago aldatzea dakar.

Zenbait hizkuntzalarik euren lanetan jaso duten moduan (Aurrekoetxea, 2004; Auer, 1998; Elexpuru, 1996; Zelaieta, 2004...), belaunaldi gazteagoengan tarteko hizkera bat, dialekto tradizionalaren eta aldaera estandarren arteko aldaera berri bat nagusituz doa, «bertako euskara estandarizatu» antzeko bat Zelaietaren hitzetan (2004: 229).

Auer eta Hinskens-ek bi maila ezberdintzen dituzte dialekto tradizionalen eta aldaera estandarren artean: aldaera erregional estandarrek (*regional standard varieties*) eta dialekto erregionalak edo erregiolekoak (*regional dialect koinai / regiolects*) (1996: 7). Bi hizkuntzalari horien ustez, hizkuntza-aldaketak konbergentziatzekoak direnean, hau da, berdintzera egiten dutenean, estandarrek eraginak edo dialektoek eragindakoak izan daitezke<sup>6</sup>. Hau da, euskalkiak estandarren eraginez aldatuz doaz, baina estandarrek ere euskalkien hainbat ezaugarri beregana ditzake. Auer eta Hinskens-ek diotenez, dialekto tradizionalak eta aldaera estandarrek continuum bat osatzen dute, horiek muturrak direlarik, eta tartean bien arteko berdintzeen eraginez bestelako aldaerak sortuz doaz. Tarteko aldaera horiek, bai estandarren bai euskalkien ezaugarriak izango dituzte.

#### 4. Ondorioak

Ikerketa honen abiapuntua hipotesi bat izanik, aztergai izan ditugun Berako hizkeraren bi ezaugarriak galduz doazela esan dezaket. Izan ere, hasierako hipotesiaren arabera, bokalen arteko elkartetan **e** eta **o** bokalak beste bokal ireki baten aurrean daudenean beti ixten dira; aldiz, **i** bokala denean bokal irekien aurrean dagoena, orain arteko joera **y** epentetiko bat tartekatzea izan da. Baina bi joera horiek gazteen artean galtzen ari direla esan behar da, adinekoek oraindik ere horrela egiten dutelarik. Taulek hala dela adierazten digute, eta ez bakarrik gazteen artean; esan daiteke helduek, adinekoen joerarekin konparatuz gero, oso gutxitan tartekatzen dutela epentesia (% 26,81ek). Grafikoek ondo adierazten duten moduan, epentesia galtzen ari den baliabidea da, haur, gazte zein helduen artean oso gutxitan erabiltzen baita. Zelaieta ere horretaz konturatu zen bere lanean (2004: 236). Bokal irekien bilkuretan gertatzen den ixtea ere gero eta gutxiago erabiltzen bada ere, oraindik aurki daiteke gazte, heldu eta adinekoen hizketetan. Beraz, bi ezaugarri horien erabilera behera badoa ere, esan behar da ez direla neurri berean galtzen ari.

Bokal irekiaren ixtea nahiz epentesia bai hitz-mugan (*esnia, ogiya*) eta bai erroan (*juan, baliyo*) gertatzen dela esan daiteke, eta mugan dagoenean lotuta datozkion deklinabide-markekin zerikusirik ez duela ondoriozta daiteke, bestek

---

6. «... language change may take place in the form of structural convergence, either because the standard assimilates to the dialects or because the dialect converges towards the standard» (idem, 1996: 6).

beste, oso modu aleatorioan erabiltzen dituztelako, esate baterako: absolutiboak aditz iragankor baten subjektu moduan... Gainera, oso deigarria da hainbat lekukok hitz bera bitan esan behar izan dutenean, bakoitzean modu ezberdin batean erabili izana. Esate baterako, *berde* hitza lekuko bakoitzak bitan ahoskatu zuen, eta askok batean *berdeak* eta bestean *berdi(a)k* esan zuten, bata ergatibo singularra eta bestea absolutibo plurala baziren ere, kasu-markarekin zerikusirik ez duelarik, batzuek **e** bokal irekiaren ixtea lehenengo kasuan erabili dutelako eta beste batzuek bigarreanean.

Berako hizkeran hauteman ditzakegun galera horiek aldaera estandarren eraginaren ondorioztat har ditzakegu. Estandar horren eraginagatik, besteak beste, estandarren eta euskalkiaren arteko aldaera berri bat nagusituz doa. Aipatzekoa da, Auer eta Hinskens-ek jasotzen duten moduan, aldaera berri horien gramatikak eta fonologiak (lan honetan fonologia aztertu da) dialekto tradizionalenak baino erregularragoa eta sinpleagoa izateko joera dutela, ez dialekto zaharrenak bezain markatua (1996: 9).

Lan honi amaiera emateko, hasierako hipotesia berretsiztat eman dezakegu, eta berriro ere esan Berako hizkeran, alde batetik, bokal irekien elkarketetan lehenengoa ixteko joera izan arren, gero eta gutxiago erabiltzen dela; eta, bestetik, orain arte goiko bokalaren eta bokal irekien arteko elkarketetan *y* epentetiko bat tartekatze joera nagusi izan bada ere, jada epentesirik ez egitea nagusitu dela, haur, gazte nahiz helduek hala egiten dutelako gehienetan, Berako hizkeraren aldaketaren adierazle, eta euskalki guztiena oro har.

## Bibliografia

- Auer, P. (1998): "Dialect Levelling and the Standard Varieties in Europe", *Folia Linguistica*, **XXXII/1-2**, 1-9.
- Auer, P. eta Hinskens, F. (1996): "The Convergence and Divergence of Dialects in Europe. New and not so New Developments in an Old Area", *Sociolingüística*, **10**, 1-30.
- Aurrekoetxea, G. (2004): "Estandar eta dialektoen arteko bateratze joerak (ikuspuntu teorikotik begirada bat)", *Uztaro*, **50**, 45-57.
- Elexpuru, J. M. (1996): "Herri euskararen eremua", *Euskera*, **41:3**, 523-529.
- Gaminde, I. (1985): *Aditza ipar goi nafarreraz*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- González, S. (2001): "Barietatea eta estandarra: batuaren eragina ume bizkaitar biren hizkeran", *Enseiukarreen*, **15**, 89-144.
- Hinskens, F. (1998): "Dialect Levelling: A Two-dimensional Process", *Folia Linguistica*, **XXXII/1-2**, 35-51.
- Sánchez Carrión, J. M. (1972): *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra (1970)*, Príncipe de Viana, Iruñea.
- Zelaieta, E. (2004): "Bortzerrietako euskara, herriz herri (ez)berdintasunetan barrena", *FLV*, **36**, **96**, 223-248.





